

MPEG-7a, multimediaren etorkizuna

Josu Waliño Pizarro
Informatikan lizentziatua

**Gero eta multimedia-
-informazio gehiago
gordetzen da era digitalean,
eta gero eta zailagoa egiten
zaigu informazio hori
aurkitzea. Hutsune hori
betetzera dator MPEG-7
lengoaia berria. Hori erabiliz,
irudi- eta audio-bankuetan
bilaketa azkarrak egin ahal
izango ditugu, estandar
horrek gure datu-bankuetan
gordetako fitxategi
audiobisualen deskribapen
zehatzak gordetzen
baitizkigu.**



ARTXIBOKOA

MPEG-7A HAINBAT MULTIMEDIA-INFORMAZIO DESKRIBATZEKO ezarritako estandarra besterik ez da. Deskribapen horretaz baliatuz, fitxategi audiobisualetan egon daitezkeen irudi edo hitz zehatzak bilatzeko sistemak presta ditzakegu, edozein datu-basetan egin ohi den moduan, hitz gakoak erabiliz. Estandar horrek multimediaren deskribapena ahalbidetzen du, edukiak hitz

gakoen bidez eta ulermen semantikoaren bidez azaltzen baititu.

Estandar berri hori indexaziorako tresnen lagungarri bihurtu daiteke, horrela ikus-entzunezko materialez osaturiko datu-banku handiak osatu (irudi finkoak, grafikoak, bideoak, audioak etab.) eta datu-base horietan bilaketak azkar egitea ahalbidetzen du.

Aurrekariak

Estandar horren aurretik izan ziren beste hainbat. MPEG-1 estandarren bidez ikus-entzunezko fitxategiak gorde eta deskargatzen ziren. MPEG-2a etorri zen ondoren, telebista digitalerako erabiliko zena, eta MPEG-4a azkenik; honek audioa eta bideoa objektu moduan kodifikatzen du. Estandar berriak ez ditu aurrekoak ordezten, erabili egiten ditu.

“MPEG-7a hainbat multimedia-informazio deskribatzeko ezarritako estandarra besterik ez da”

Funtzionatzeko era honakoa izan daiteke: aplikazio bat erabiliz hainbat bideo-edo audio-fitxategiren deskribapena gorde daiteke MPEG-7a erabiliz. Horretarako XML formatua erabiltzen da, deskribapen hori formatu honetan gordetzen baita. Gordetako deskribapenak ez du fitxategiaren edukia bakarrik azalduko, baita bestelako informazioa ere: konpresio-mota, eskubideak, sailkapena, antzeko materialerako estekak, testu-ingurua etab. Horrela, bilatzaileek hainbat gakoren araberako bilaketa azkarra egin dezakete.

Ondorengoak

MPEG taldeak lantzen dituen estandarrek ez dira horrekin amaitzen. Prestatzen ari diren hurrengo estandarra MPEG-21 izeneko da. Horren bidez, multimedia-prozesuaren inguruko elementu guztiak kontrolatzen dira. MPEG-21ak prozesu guztian agertuko diren elementuak deskribatzen ditu: erabiliko diren ordenagailuak, sareak etab. Pixkanaka gero eta gehiago zehazten ari dira multimedien etorkizuna. ☐

Lindows, Linux ala Windows?

Sistema eragile berri bat dator merkatura toki bila: LindowsOS. Datoren urteko lehen hiruhilabeteetan salgai egongo den sistema eragile horrek berrikuntza nagusi bat du: Linux zein Windows-erako prestatutako aplikazioetarako balioko du. Hau da, testu bat idazteko berdin izango zaigu MSWord erabili ala Gedit erabili, biak izango baititugu erabilgarri.

Etexko erabiltzaileentzat pentsatutako sistema eragilea da hori, bizitza erosoago egiteko asmoz garatutakoa. Horregatik, ez du izugarriko ordenagailua eskatuko, nahikoa izango da 64 mega Ram eta 1 MB-eko disko gogorra izatea sistema horrekin lan egin ahal izateko. Ikusiko dugu zein itxura duen.

Wisnut, Google-ren arerio zorrotza

Asko gara Google (www.google.com) Interneteko bilatzaile onena dela esan ohi dugunak. Azken hilabeteetan, gainera, hobekuntza nabariak izan ditu bilatzaile horrek: irudiak bilatzeko aukera, berri-taldeetan bilaketak egiteko aukera, edo bere informazio-zuhaitzean nabigatzeko aukera ere, besteak beste.

Orain, ordea, arerio zorrotza agertu zaio: Wisnut bilatzailea (www.wisnut.com) Google-ren antzekoa bada ere, baditu hainbat berezitasun: zalantzarik gabe nabarmenena zera da: aurkitutako web orrien pantaila-argazkiak emaitzarekin batera jasotzeko aukera. “Sneak-a-peek” izeneko aukeraz baliatuz, emaitza dugun orrian bertan zabalduko zaigun leihoan jarraitu ahal izango dugu aurkitutako web gunearen informazioa.

Google



Horretaz gain, informazioa indexatzeko duen erak ere badu berezitasunik: Google-k web orrien garrantzia zehazterakoan, orri horretara dauden lotura-kopurua hartzen du kontuan. Horrela, kanpotik lotura asko dituen web gune batek postu ona lortuko du Google-ren emaitzetan. Wisnut-en indexatzaileak, berriz, testuinguruaren garrantziaren arabera klasifikatzen omen ditu web orriak, edukiak aztertu eta horien garrantzia kontuan hartuta.

Dena den, Google-k badaki euskaraz (<http://www.google.com/intl/eu/>), eta Wisnut-ek oraindik ez.